


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA, 2019KO MAIATZA

Euskal AEko industri jarduera %3 gehitu zen 2019ko maiatzean

Industri Produkzioaren Indizeak %0,8ko gehikuntza izan du 2019ko lehen bost hiletan

Eustaten datuen arabera, 2019ko maiatzean %3 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan 2018ko hil beraren aldean. 2019ko lehen bost hiletan %0,8ko hazkundera izan da 2018ko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %1,2 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa aurreko hilarekin, 2019ko apirilarekin, alderatuta.



2019ko maiatzeko indizearen bilakaeran, 2018koaren aldean, eboluzio positiboak industriaren sektore guztietan izan dira. *Kontsumo-ondasunak*, guztira, %7,9 gehitu dira; horien barnean, *Iraunkorrak* %11,5 eta *Ez-iraunkorrak* %7,1. *Ekipo-ondasunak* %3,1 gehitu dira, *Bitarteko ondasunak* %2,7 eta *Energia* %0,7.

Hil arteko aldakuntzak, 2019ko maiatzekoak 2019ko apirilarekiko, emaitza positiboak ere dakartza sektore industrial handietan, salbu eta *Energian*, zeina %1,9 jaitsi den. *Ekipo-ondasunak* %4,6 gehitu dira eta *Bitarteko ondasunak* %0,7. *Kontsumo-ondasunak*, guztira, %1,3 gehitu dira, zeren *Ez-iraunkorrak* %1,5 gehitu diren eta *Iraunkorrak* %0,8.

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak 2019ko maiatzean, urte artean: *Material eta ekipa elektrikoa*, urte artean %10,4ko hazkundearekin; *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*, %6,3koarekin; eta *Kautxua eta plastikoak*, %5,3koarekin. Hazkunde urriagoko sektoreak, hauek: *Zura, papera eta arte grafikoak*, %1eko igoerarekin; eta *Metalurgia eta produktu metalikoak eta Makineria eta ekipoa*, %1,3koarekin kasu bietan. *Garraio-materialak*, hainbat hilabetetan tasa negatiboekin aritu ondoren, gora jo du berriz eta %3,0ko tasa positiboa eduki du.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	1,3
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	6,3
09 - Kautxua eta plastikoak	5,3
13 - Makineria eta tresneria	1,3
14 - Garraio-materiala	3,0
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	4,0
12 - Material eta tresneria elektrikoa	10,4
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	1,0

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeka, maiatzeko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Bizkaian, %5,3ko igoerarekin, eta Gipuzkoan, %3,3koarekin, baina Araban jaitsi da %1,1.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2019ko Maiatza

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Mai2019 / Mai2018	A(Mai2019) / A(Mai2018)(*)	Mai2019 / Api2019	Api2019 / Mar2019
Indize orokorra				
Euskal AE	3,0	0,8	1,2	1,8
Araba/Álava	-1,1	-4,1	3,6	-0,4
Bizkaia	5,3	3,6	-0,5	3,1
Gipuzkoa	3,3	1,1	1,6	1,9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	7,9	4,2	1,3	3,9
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	11,5	1,5	0,8	9,5
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	7,1	4,8	1,5	2,6
Ekipo-ondasunak	3,1	0,6	4,6	1,0
Bitarteko ondasunak	2,7	0,2	0,7	2,5
Energia	0,7	0,6	-1,9	-1,3

(*) 2019ko urtarritetik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2018eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62